

PETROLIOA. AEBen petrolio erreserbek ere behera egin dute, 300 milioi upeleko muga psikologikoa galduz

Petrolioaren prezioak gora egin du berriz ere, irailaren 11ko mailatik gertu jartzeko

AEBek Iraki eraso egingo dioten ziurtasuna da arrazoi nagusia

Erredakzioa | DONOSTIA

AEBek Iraki erasoko dioten ziurtasuna gero eta handiagoa da. Susmoak ekonomiaren errietan itsatsirik dagoen gaitza dirudi. Burtsetan egonezintasuna sortzeaz gain, petrolioaren merkatuan eragin zuzena izaten ari den kontua da erasoarena. Eta atzo, petrolioaren prezioek gora egin zuten. Brent upela, European erreferentzi gisa erabiltzen dena, 28 dolarretik gora ibili zen egun osoan zehar, irailaren 11ko mailatik gertu.

Baina eraso ez zen gorakadaren eragile bakarra izan. AEBetako petrolio eta gasolina erreserbek ostegunean behera egin zuten iragarpenak ere garrantzi handia izan zuen. AEBen petrolio erreserbek %2,1



egin zuten behera, 298,9 milioi upeletan geratuz. Adituen ustez, 300 milioi upeleko muga psikologikoa galtzeak eragin zuen prezioen gorakada.

Hala ere, adituak AEBen erasoaren beldur dira batez ere,

izan ere Ekialde Hurbilean munduko petrolioaren herena ekoizten da. Raul Muñoz Mexikoko PEMEX petrolio enpresaren zuzendariak adierazi zuenez, «era horretako ekintza batek egonezintasuna ekarriko luke, eta merkatuak modu objektibo batean erantzun arte denbora pasa beharko luke. Aste batzuetan ezjakintasun egoeran egongo ginateke».

Gauzak horrela, ostegunaren amaieran 27,66 dolarrean negoziatzen zen Londresen Brent upela. Atzo, berriz, 28 dolarreko maila igaro eta 28,95 dolareraino ere iritsi zen; gero, 21:00etarako, 28,27 dolarreara jaitsi zen. Beraz, dolar bat baino gehiago igo zen atzo eta irailaren 11ko mailara iristeko zorian egon zen, 29 dolarreara.



MURAD SEZER / AP

Persiako Golkon AEBetako ontziak prest daude Iraki erasotzeko

Igoerei buruz, Alvaro Silva Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeko idazkari nagusiak adierazi zuenez, justifikaziorik gabeko beldurren ondorio dira, berak deitu zituen bezala «merkatuko indar desorekatzaileen» ondorio.

Bere esanetan eskariari aurre egiteko adina petrolio badago merkatuan, eta beraz, eguneko ekoizpena handitzeko arrazoi-rik ez dago. Aitzitik, Saudi Ara-

biako petrolio buruak egungo ekoizpena gainditzearen alde agertu dira.

Kontuak kontu, abuztuaren hasieran Brent upelaren prezioa 25 dolar inguruan zegoen eta, azkenean, 27,5 dolarrean amaitu zuen hilabetea, gatazka politikoa tarteko. Eta irailean, joera horrekin jarraitzen du: as-tebetea, dolar bat baino gehiago egin du gora, 27,5 dolarretik 28,65 dolarreara.

ARRANTZA. *Cistude* arrantzontziaren istripuari tiraka, arrantzaleen egoera larria dela salatu dute eta legedia ez dela betetzen

I.Sagarminaga | BILBO

LAB, ELA, ESK eta STEE-EI-LAS sindikatuek Frantziako Kontsulatuaren Bilboko egoitzan eskaera-idazki bateratua aurkeztu zuten atzo. Abuztuaren 26an *Bow Eagle* zamaontziak eta *Cistude* arrantzontziaren talkaren ondorioz, lau arrantzale zendu ziren (horieta-tik hiru euskal herritarrek).

Francis Roudiere kontsularekin aurrez egoterik ez zuten izan, eta eskaera bertan utzi bazuten ere, Roudiereri azalpen sakonagoak eskaintzeko asmoa zutela jakinarazi zuten. Fran-

Sendien laguntzak «bizkortzeko» eskatu diote sindikatuek Frantziako Kontsulatuari

tziako kontsulatura ELAren ize-nean Luis Miguel Saenz joan zen, LABetik Juanjo Rodriguez, ESK-ko Esteban Diegoa eta EILASen ordezkari Ruben Belandia.

Laguntzak bizkortzeko eskaera

Desagerturiko arrantzaleen sendiek diru laguntzak jaso ahal ditzaten administrazio aferak «bizkortzeko» eskatu diote sindikatuok kontsulari. ELAko Bizkaiko Osasun eta Segurtasun

arduradun Luis Miguel Saenzek aditzera eman legez: «Nahiko zoritxarra dute senide bat itsasoan galtzen duten sendiek, horrez gain, lanari dagozkion aferra, administratibo eta juridikoek daramaten denbora luzea jasan behar izateko».

Horri dagokiolarik, Frantziako kontsulatuak «ardura zuzenak» dituela eta pausu horiek arintzera «derrigortuta» dagonaren ustekoak dira lau sindikatuak.

«Lagedia ez da betetzen»

LABeko osasun eta segurtasun arduradun Juanjo Rodriguezek azaldu zuenez, «eskaeran azaldu nahi dugu, ez dugula uste Frantziak bere legedia betetzen ari denik, ezta Europa mailakoa ere ez». Era berean, euren iritziz, marinelen lan baldintzen inguruko legedia bete behar dutenak ez dira bere eginbeharraz arduratzen. Arlo horretan, itsasontzietan lanpostu garrantzi-

tsuetarako gero eta arrantzale gutxiago kontratatzen direla salatu zuten; hala nola, lemako eta motor arduradunen postuak murrizten ari dira; lanaldia, berriz luzatzen ari da; atsedenaldi derrigortuei muzin egiten zaie; eta beharrezko arroparik zein radiobalizarik ez dute marinelek.

«Horren ondorio da, istripuak izateko arriskua areagotzea eta istripu baten larrialdi deiari berandu erantzutea. Larriena, horri aurre egiteko eta konponbidea bilatzeko arduradunek ez dutela ezer egiten», ohartarazi zuen Rodriguezek.

BURTSA. Dow Jonesek eragindako igoera, bolumen eskasez

Ezkortasuna debekatuta

J. B. Andueza |

Azken aldiko ezkortasuna eta debekuak ahaztu genituen atzo: hasierako dudak uxatuz, Dow Jones irribarretsua ezkortasuna debekatu zuen, langabeziaren jaitsiera eta Intelen salmentan onen izenean. Bundesbankeko lehendakariorde Jurgen Stark ere itxaropentsu agertu

zen, munduko ekonomiak errekuperazio azkarra izango duela esanez. Iraken aurkako erasoaren izuak, petrolioaren igoerak, 11 inguruko prezioetara bultzatu du. Repsol-YPFri (+%5,75) egin zion mesede. Espainiako telefono zerbitzuen prezio sistema berriak berriz Edurnezuri (+%3,99) bultzatu zuen eta BBVAk %4,37 irabazi zuen.

DATUA

Nafarroako Azkoyenen akzio batek 9,1 euro balio ziotuen gaur urtebete. Atzo %1,82 galdu ostean, 4,32 euroan dago makina banatzaile egilea, duela 6 urteko prezioan. Zergatiak? Tabako banaketan murrizketak ezarriko lituzkeen lege egitasmoa eta dibertsifikazio eskasa..

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%2,5** | Azken indizea **1.125,62** | Aurreko indizea **1.098,13**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	8.318,44 (-%1,23)
Tokio (Nikkei)	9.222,12 (+%1,62)
Madrid (IBEX-35)	6.080,4 (-%1,37)
Paris (CAC-40)	3.139,39 (-%0,92)
Londres (FTSE 100)	4.011 (-%0,39)
Frankfurt (DAX)	3.354,71 (-%2,08)
Milan (Mibtel)	17.984 (+%0,96)

* Eguerdita arte

Dibisen merkatua

	Euro bat
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	0,9975
Libera Esterlina	0,6354
100 Yen (Japonia)	117,34